



## SUMARIO

## AURKIBIDEA

	PAGINA		ORRIALDEA
<b>I DIPUTACION FORAL DE ALAVA</b>		<b>I ARABAKO FORU ALDUNDIA</b>	
<b>* Disposiciones y Resoluciones Administrativas</b>		<b>* Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak</b>	
<b>Decretos Forales del Consejo de Diputados</b>		<b>Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak</b>	
- Decreto Foral 22/2000, del Consejo de Diputados de 7 de marzo, que aprueba el Plan de Gestión del ave "Avión Zapador ( <i>Riparia riparia</i> ", como especie amenazada y cuya protección exige medidas específicas.....	2.996	- 22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, "Uhalde Enara" ( <i>Riparia riparia</i> hegaztia Kudeatzeko Plana onesten duena. arriskuan daoen espeziea delako eta bere babesak berriazko neurriak eskatzen dituelako...	2.996
- Decreto Foral 23/00, del Consejo de Diputados de 7 de marzo, que aprueba la convocatoria para el otorgamiento de subvenciones dirigidas a la financiación de los honorarios de redacción de los instrumentos de planeamiento urbanístico y de su ejecución jurídica y material.....	3.002	- 23/00 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, dirulaguntzak jasotzeko deialdia onartzen da. Dirulaguntza horiek hirigintza-plangintzako proiektuak idazteagatik eta juridikoko eta materialki burutzeagatik ezarri diren dirusariak emateko izango dira .....	3.002
<b>* Anuncios</b>		<b>* Iragarpenak</b>	
DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS		OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA	
- Notificación actos administrativos a sujetos pasivos de T. Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Sucesiones y Donaciones.....	3.012	- Ondare Eskualdaztea, Dokumentaturiko Egintza Juridikoak eta Oinordetza eta Dohaintzak direla eta, zergadunei administrazio egintzak jakinaraztea.....	3.012
- Notificación de liquidaciones del IAE-99 que no se han podido practicar a los interesados.....	3.013	- Interesatuei helarazi ezin izan zaizkien JEZ-99ren likidazioak jakinaraztea .....	3.013
- Notificación de varios actos administrativos que no se han podido practicar a los interesados.....	3.014	- Interesatuei helarazi ezin izan zaizkien hainbat administrazio-ekintza jakinaraztea.....	3.014
- Notificación de actos administrativos relacionados con fraccionamientos de pago.....	3.014	- Ordainketaren zatiketarekin zerikusia duten administrazio egintzak jakinaraztea.....	3.014
- Se notifica a don Angel Carrasco Martín la incoación de las actas de disconformidad número 1313-BJ, I.R.P.F., ejercicios 1995 a 1998 y número 1314-BJ, I.V.A., ejercicios 1996 a 1998, poniendo en su conocimiento la posibilidad de examinar el expediente y presentar alegaciones .....	3.015	- Angel Carrasco Martín jaunari 1313-BJ zenbakidun desadostasun-aktari (P.F.E.Z. 1995-1998 ekitaldiak) eta 1314-BJ zenbakidun aktari (B.E.Z. 1995-1998 ekitaldiak) hasiera eman zaiela jakinarazten zaio eta espedientea azter dezakeela eta oharpenak aurkez ditzakeela adierazten zaio .....	3.015
- Adjudicación por procedimiento Negociado .....	3.015	- Prozedura negoziatuaz adjudikatzea.....	3.015
DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA		LEHENDAKARITZA SAILA	
- Corrección de errores de la Orden Foral número 80/2000, de fecha 9 de marzo, del Diputado Foral de Presidencia, por la que se determina la necesidad de contratar el mantenimiento de los ascensores de la Diputación Foral de Alava.....	3.016	- Lehendakaritza Saileko foru diputatuak martxoaren 9an emandako 80/2000 zenbakidun Foru Aginduaren hutsak zuzentzea. Honen bidez Arabako Foru Aldundiko igogailuen mantenimendua kontratatu beharra zehazten zen .....	3.016

## DIPUTACION FORAL DE ALAVA ARABAKO FORU ALDUNDIA

### DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

#### - Decretos Forales del Consejo de Diputados

1.771

**DECRETO FORAL 22/2000. del Consejo de Diputados de 7 de marzo, que aprueba el Plan de Gestión del ave "Avión Zapador" (*Riparia riparia*) ". como especie amenazada y cuya protección exige medidas específicas.**

El artículo 47 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco crea el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora, Silvestre y Marina, el cual estará integrado por las especies, subespecies o poblaciones cuya protección exige medidas específicas.

El Decreto 167/1996, de 9 de julio, del Gobierno Vasco, regulador de este catálogo, incluye en el mismo al ave "Avión Zapador" (*Riparia riparia*), dentro de las especies, subespecies y poblaciones catalogadas como "vulnerables". La catalogación de dicha especie conlleva, además de la aplicación de las medidas protectoras establecidas en el artículo 50.1 de la Ley 16/1994 de 30 de junio, la elaboración de un Plan de Gestión que contendrá las directrices y medidas necesarias para eliminar las amenazas existentes sobre dicha especie, promoviendo la recuperación, conservación o manejo adecuado de sus poblaciones, así como la protección y mantenimiento de sus hábitats, conforme dispone el artículo 50.3 de dicha Ley.

Redactado el Plan de Gestión del ave "Avión Zapador", compete su aprobación a los Organos Forales de los Territorios Históricos en cuyo ámbito tuviese la especie su distribución natural o se promoviese su recuperación, por aplicación del artículo 8.2 del Decreto 167/1996 de 9 de julio, del Gobierno Vasco.

Por ello, y a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

#### DISPONGO:

Artículo 1.- Se aprueba el Plan de Gestión del ave "Avión Zapador" (*Riparia riparia*) en Alava, que se acompaña en Anexo I a este Decreto Foral.

Artículo 2.- Corresponde al Departamento de Agricultura y Medio Ambiente el desarrollo y ejecución de las actuaciones previstas y derivadas del Plan de Gestión del ave "Avión Zapador". El Plan de Gestión podrá desarrollarse mediante Programas de Actuaciones que concretarán en el tiempo y en el espacio la ejecución de sus previsiones.

Artículo 3.- Este Plan de Gestión se aplicará íntegramente desde su entrada en vigor hasta que la especie se descatalogue como "vulnerable". En la medida en que se produzcan y conozcan variaciones sustanciales en el estado de conservación de la especie o de su hábitat, el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente podrá proponer el inicio de un procedimiento de revisión, al término del cual se producirá la redefinición tanto del ámbito de aplicación como de los objetivos generales y directrices y medidas previstas para su cumplimiento. En cualquier caso, se efectuará una revisión cada cuatro años.

Artículo 4.- Las previsiones del Plan de Gestión se aplicarán en la totalidad de área de distribución natural del ave "Avión Zapador" en Alava, que se define en las siguientes zonas, sin perjuicio de que existan otras nuevas colonizadas:

Zona 1: Río Tumecillo y tramo medio-bajo del Omecillo.

Zona 2: Río Bayas.

Zona 3: Tramo medio del río Zadorra y sus afluentes (términos municipales de Vitoria-Gasteiz, Arrozua-Ubarrundia y Elburgo.

### XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

#### - Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

1.771

**22/2000 Foru Dekretua. martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, "Uhalde Enara" (*Riparia riparia*) hegaztia Kudeatzeko Plana onesten duena. arriskuan daoen espezieia delako eta bere babesak berarizko neurriak eskatzen dituelako**

16/1994 Legeak, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Zaintzekoa, 47. artikuluan arriskuan dauden Baso eta Itsas Abereztako eta Landareztako Espezien Katalogoa sortzen du. Berarizko neurriak behar dituzten espezieiek, azpiespezieiek edo populazioek osatzen dute katalogo hau.

Katalogo hau arautzen duen 167/1996 Dekretuak, uztailearen 9koa, Eusko Jaurlaritzarena, "Uhalde Enara" (*Riparia riparia*) aipaturiko katalogoan sartzen du, "zaurgarri"tzat hartutako espezie, azpiespezie eta populazioen barnean. Espezie hau horrela katalogatzeak bi ondorio ditu: alde batetik, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 50.1 artikuluan ezarritako babes-neurri aplikatzea, eta bestetik, Kudeaketa Plan bat idaztea. Kudeaketa Plan honek, espezie horren gainean dauden arriskuei aurre egiteko beharrezkoak diren zuzentarauak eta neurriak izateaz gain, populazioen susperraldia, babesa edo maneiu egokia bultzatuko du, eta era berean, bere habitaten babesa eta mantenua bultzatuko du, aipaturiko Legearen 50.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

"Uhalde Enara" hegaztiaren Kudeaketa Plana idatzitakoan, Lurralde Historikoen Foru Organoei dagokie hau onestea, baldin eta eremu horietan espezieak bere hedadura naturala badu edo bere susperraldia han bultzatzen bada. Hala xedatzen du 167/1996 Dekretuak, uztailearen 9koa, Eusko Jaurlaritzarena, 8.2 artikuluan.

Hori dela eta, eta Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunean eginiko bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### XEDATU DUT:

1. artikulua.- Araban "Uhalde Enara" (*Riparia riparia*) hegaztiaren Kudeaketa Plana onetsi da, Foru Dekretu honen I. eranskinean doana.

2. artikulua.- "Uhalde Enara" hegaztiaren Kudeaketa Planean zehaztutako eta hortik sortutako jarduerak garatzea eta betearaztea Nekazaritza eta Ingurumen Sailari dagokio. Denboran eta espazioan xedatutakoa garatuko duten Jardueren Programen bidez gara daiteke Kudeaketa Plan hau.

3. artikulua.- Kudeaketa Plan hau oso-osorik aplikatuko da indarrean sartzen denetik espezieia "zaurgarri"tzat hartzen ez den arte. Espeziearen edo habitataren biziraupenean funtsezko aldaketarik gertatu eta ezagutuz gero, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak berraztertze proposa dezake. Berrazterketa bukatutakoan bai aplikazio eremua bai betearazteko xede eta zuzentarau orokorrak eta zehaztutako neurriak berriro definituko dira. Edonola ere, lau urtero berraztertuko da.

4. artikulua.- Araban "Uhalde Enara" hegaztiaren berezko hedadura eremu osoan aplikatuko dira Kudeaketa Planaren zehaztapenak. Gaur egun eremu hau horrela banatzen da, nahiz eta etorkizunean beste batzuk egon daitezkeen:

1. zonaldea: Tumecillo ibaia eta Omecillo ibaiaren erdiko eta beheko tartea.

2. zonaldea: Baia ibia.

3. zonaldea: Zadorra ibaiaren erdiko tartea eta bere ibai-adarrak (Vitoria/Gasteiz, Arrozua-Ubarrundia eta Burgeluko udalbarrutiak).

**Zona 4: Ribera del Ebro.**

Estas zonas definidas abarcan el dominio público hidráulico y sus zonas de servidumbre, así como las balsas de riego ubicadas en aquellas y sus márgenes hasta los cien metros del borde exterior.

La delimitación de las zonas que constituyen el área de distribución natural de la especie figuran en el Anexo II de este Decreto Foral.

Artículo 5.- Son aplicables en todo el Territorio Histórico de Alava las siguientes prohibiciones genéricas:

a) Cualquier actuación no autorizada hecha con el propósito de darles muerte, capturarlos, perseguirlos o molestarlos, incluyendo a sus crías o huevos, así como la destrucción de su hábitat y en particular, de sus nidos, áreas de reproducción, reposo o alimentación.

b) Poseer, naturalizar, transportar, vender, exponer, importar o exportar ejemplares vivos o muertos, salvo en los casos que reglamentariamente se determinen.

Artículo 6.- En el área de distribución natural de la especie en Alava, queda prohibida cualquier actuación sobre los cauces o riberas y extracción de áridos en el dominio público hidráulico y sus zonas de servidumbre y policía, sin la autorización del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral.

Igualmente queda prohibida, salvo autorización expresa del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, la observación y registro gráfico o sonoro a menos de 250 metros de esta especie y el establecimiento para tales fines, de puestos fijos.

Artículo 7.- Los instrumentos de planeamiento territorial y urbanísticos asegurarán la preservación, mantenimiento o recuperación de los hábitats de esta especie catalogada, justificando los casos en que sea necesario limitarlos.

Artículo 8.- A efectos de lograr la máxima eficacia en la aplicación de las directrices y medidas previstas en este Decreto Foral, especialmente en las zonas de futura actuación en cauces, se establecerán los convenios y demás mecanismos de coordinación, que sean necesarios con el Departamento Obras Públicas, Urbanismo y Transportes de esta Diputación Foral, con los Departamentos de Agricultura y Pesca, el de Transportes y Obras Públicas, el de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y el de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, u órganos similares, así como con los ayuntamientos implicados.

Artículo 9.- Las infracciones a lo dispuesto en Decreto Foral serán sancionadas de acuerdo a lo establecido en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, sin perjuicio de la responsabilidad exigible en vía penal, civil o de otro orden en que se pueda incurrir.

**DISPOSICIONES FINALES**

Primera.- Se autoriza al Diputado Foral Titular del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente a dictar cuantas disposiciones y actos sean necesarios para la ejecución de este Decreto Foral.

Segunda.- El presente Decreto Foral, entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 7 de marzo de 2000.— El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBIA.— El Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, GABRIEL CHINCHETRU FERNANDEZ DE ALEGRIA.

**Anexo I****AVE "AVION ZAPADOR"/UHALDE-ENARA***Riparia riparia, Linnaeus, 1758***1. LA ESPECIE****1.1. Características de la especie**

Especie colonial de amplia distribución por la región holártica: Europa, Asia y Norteamérica. En la Península Ibérica, está ampliamente distribuida aunque falta en gran parte de Portugal. Al tratarse de una especie migratoria, su tasa de supervivencia anual es baja, lo que se compensa con unos elevados paráme-

**4. zonaldea: Ebroko ibaibazterra.**

Definitutako zonalde hauek uren jabari publikoa, bere zortasun eremuak, bertan dauden ureztatzeko urmaelak eta, kanpoko mugatik neurtuta, urbazterrak ehun metrotarainohartzen dituzte.

Espeziearen berezko banaketa eremua osatzen duten zonaldeetako mugak Foru Dekretu honen II. eranskinean datoz.

5. artikulua.- Orotariko debeku hauek Arabako Lurralde Historiko osoan aplika daitezke:

a) Baimendu gabeko edozein jarduera, helburua hauetakibat bada: hil, harrapatu, segitu edo gogaitzea, baita bere kumeak edo arraultzeak ere. Debeku honen barruan bere habitaten suntsipena sartzan da eta bereziki, bere habiak, ernalkuntzarako, atsedenerako edo elikatzeke guneak.

b) Bizirik edo hilik dauden enarak eduki, bertakotu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea debekatuta dago, araudi zehazten diren kasuetan izan ezik.

6. artikulua.- Araban espezieak duen berezko hedadura eremuan ubideetan eta ibaibazterretan edozein jarduera debekatuta dago eta uren jabari publikoan, bere zortasun zonaldeetan eta zaintza eremuetan aleak hartzea ere debekatuta dago, baldin eta Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Sailaren baimenik ez dauka.

Nekazaritza eta Ingurumen Sailaren berariazko baimenik eduki ezean, era berean, espezie hau 250 metro baino gutxiagotik grafikoki edo soinuaren bidez behatzea edo erregistratzea eta horretarako postu finkoak ezartzea debekatuta dago.

7. artikulua.- Lurralde edo hirigintza planeamenduaren tresnek katalogatutako espezieen honen habitatak zaintzea, mantentzea edo berreskuratzea ahalbideratuko dute, habitat hauek mugatu behar direnean arrazoitu beharko delarik.

8. artikulua.- Foru Dekretu honetan zehazten diren zuzentzaruek eta neurriek, gehien bat ubideetan egin beharreko jardueretan, aplikatzerakoan ahalik eta eraginkortasuna handiena lortzearen, Foru Aldundi honen Herrilan, Hirigintza eta Garraio Sailarekin, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin, Garraio eta Herrilan Sailarekin, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarekin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin, edo antzeko organismoekin eta eragindako udalekin beharrezkoak diren hitzarmenak eta gainontzeko koordinazio tresnak ezarriko dira.

9. artikulua.- Foru Dekretu honen kontra doazen arau-hauspenak 16/1994 Legeak, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Zaintzekoa, xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Hala ere, bide penalean, zibilean, edo beste era batekoan egon daitekeen erantzunkizuna ere exijituko da.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa.- Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatuak ahalmena dauka Foru Dekretu hau betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eta ekintzak eman ditzan.

Bigarrena.- Foru Dekretu hau Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko martxoaren 7a.— Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBIA.— Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, GABRIEL CHINCHETRU FERNANDEZ DE ALEGRIA

**I. eranskina****UHALDE ENARA***Riparia riparia, Linnaeus, 1758***1. ESPEZIEA****1.1. Espeziearen ezaugarriak**

Herrialde holaritikoetan erabat hedaturik dagoen kolonia-espeziea: Europa, Asia eta Iparramerika. Penintsula Iberiarrean nahiko hedaturik dago, nahiz eta Portugaleko eremu handi batean ez egon. Espezie migratzailea denez, urtean uhalde-enara gutxi bizirik irauten dute; hala ere, bere ernalkuntza handiari

otros reproductores, por lo que cualquier incidencia que ocurra en Europa, contribuirá a disminuir su éxito reproductor, incidiendo seriamente en el número de efectivos en años sucesivos. Los factores negativos que actúan sobre la especie y que han provocado la regresión de sus poblaciones en esta área en los últimos veinte años, se deben a la destrucción o alteración de sus lugares de nidificación, disminución de la disponibilidad de recursos como consecuencia del empleo de pesticidas y a las consecuencias de una sequía pronunciada en las zonas de invernada.

#### 1.1.1. Carácter y distribución en la C.A.P.V.

Se trata de una especie autóctona en la Comunidad Autónoma del País Vasco, siendo migrante estival. Las poblaciones europeas son migrantes transaharianas, invernando en África tropical y ecuatorial.

Esta especie dispone de colonias de cría a lo largo de las zonas subcantábrica y mediterránea de Alava y dos núcleos aislados en el río Oria en Gipuzkoa. El número de colonias conocidas es difícil de precisar, dada la frecuencia circunstancial del pequeño tamaño de las mismas -que impide su localización- y la dinámica de desaparición y surgimiento de nuevos enclaves. Con todo, se constata la presencia de colonias en cuatro zonas de Alava a saber: Río Tumecillo y tramo medio-bajo del río Omeccillo; río Bayas; tramo medio del río Zadorra y sus afluentes y la Ribera del río Ebro.

Se trata de una especie que está presente como reproductor desde abril hasta julio inclusive, mientras que los migrantes aparecen desde mediados de marzo hasta principios de mayo y desde finales de agosto hasta principios de octubre.

#### 1.1.2. Hábitat

En Alava, está ligada a valles amplios y abiertos, a través de los cuales circulan ríos de curso no torrencial. En estos ambientes la erosión fluvial causa arrastre y desmoronamiento de orillas que propician la aparición de taludes terrosos de modestas dimensiones, aprovechados para instalar las colonias. El denominador común de éstas es, por tanto, la vecindad a ríos, pero también a masas de agua estancada de diferente naturaleza, constatándose el asentamiento en taludes blandos de humedales naturales. Además, utiliza cortados de balsas de riego, embalses y explotaciones de extracción de áridos, hábitats de origen artificial, producidos por el hombre. En los dos primeros casos, los taludes forman parte del cierre del vaso donde se almacena el agua. En el tercero, resultan bien de la acumulación de áridos, bien del frente de extracción sobre el que se van retirando los materiales aprovechables. Todos estos lugares están sometidos a condiciones extremadamente inestables, destruyéndose unos y creándose otros en el curso de pocos años. Esta dinámica se establece tanto de forma natural, por la actividad de los agentes erosivos sobre materiales endebles, como a causa de remodelaciones humanas en el paisaje (graveras, encauzamientos u obras de defensa contra avenidas). El ave "Avión Zapador" es una especie capaz de adaptarse a estos cambios, modificando con prontitud la localización de sus colonias. Aunque el factor clave para la presencia de la especie es la existencia de taludes fluviales, se adapta al entorno de los mismos, incluso en los valles despejados donde la ocupación agrícola del suelo es mayoritaria y la presencia humana intensa, siempre que no se moleste o agrede directamente a las colonias.

#### 1.2. Estado de las poblaciones

Su tamaño poblacional o densidad no es totalmente conocido. Por las observaciones de que se dispone, su población reproductora no debe superar de unos pocos cientos de parejas.

La tendencia de la población es desconocida, aunque la desaparición recientemente de alguna colonia en el tramo medio del río Bayas, hace pensar en una posible disminución de la población.

1.3. Amenazas y factores condicionantes de la evolución de sus poblaciones.

Las amenazas que inciden en general sobre la especie en la región holártica son la alteración o destrucción de sus lugares

esker espeziea mantendu egiten da. Ondorioz, European gertatzen den edozein gorabeherak ernalkuntzan eragina izango duenez, hurrengo urteetan hegaztien kopurua nabarmenki jaitsiko da. Espeziearen gainean eragiten duten faktore negatiboak, azken hogeit urte hauetan eremu honetan populazioaren jaitsiera ekarri dutenak, hauek dira: alde batetik, habiak jartzeko tokiak suntsitzea edo aldatzea, eta bestetik, janaria lortzeko aukera murriztea, pestiziden erabilera dela-eta eta negua pasatzeko eremuetan egon diren lehorteak direla-eta.

#### 1.1.1. Izaera eta E.A.E.-n daukan hedadura.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko bertako espeziea da eta udako migratzailea da. Europako populazioak Saharaz bestaldeko migratzaileak dira eta Afrika ekuatorialean eta tropikalean pasatzen dute negua.

Espezie honek dituen umetzeko koloniak Arabako zonalde azpikantabriar eta mediterranean daude, eta baita bi kolonia isolatu Gipuzkoako Oria ibaian ere. Kolonia ezagunen kopurua zehaztea zaila da, hauen tamaina txikia baita -aurkitzen zail egiten dituen- eta ezarleku batzuk agertu eta beste batzuk desagertu egiten baitira. Hala eta guztiz ere, Arabako lau zonaldean koloniak aurki daitezke eta hauek dira: Tumecillo ibaia eta Omeccillo ibaiaren erdi eta beheko tartea; Baia ibaia, Zadorrako erdiko tratea eta bere ibaiadarrak eta Ebroko ibaibazterra.

Espezie honen ernalkuntza garaia apiriletik uztaiera bitartean doan bitartean, migratzaileak martxoaren erdialdetik maiatzaren hasiera arte eta abuztuaren bukaeratik urriaren hasiera arte agertzen dira.

#### 1.1.2. Habitata.

Arabaren dauden haran zabal eta ireki horietatik uhar izaerakoak ez diren ibaiak igarotzen dira. Gune hauetan ibaietako higidurak ibaiertzen arrastaketan eta erorketan eragiten duenez gero, tamaina txikiko lurrezko ezpondak sortzen dira, enarek koloniak ezartzeko baliatzen dituztenak. Beraz, enarek duten ezaugarri bat ibaietatik hurbil egotea da, baina baita izatera desberdinetako ur geldietatik hurbil ere; era berean, hezegune naturalen ezaugarriak ere ezartzen dira. Aurrekoen gain, ureztatze urmaelen morkaitzak, urtegiak eta aleak biltzeko ustiategiak ere erabiltzen ditu, horiek guztiak gizonak sortu ditu. Lehenengo bi kasuetan ezpondeek ura dagoen ontzia ixten dute. Hirugarren kasuan, berriz, bi modutan sortzen dira: alde batetik, aleen bilketa ustiatzeagatik, eta bestetik, material aprobetxagarriak ateratzearen ondorioz sortzen den fronteagatik. Leku hauen baldintzak erabat ezegonkorak dira, eta urte gutxiren buruan batzuk suntsitzen diren bitartean beste batzuk sortzen dira. Dinamika honek bi jatorri ditu: naturala, hau da, gai erreagarriek gai makalen gainean duten eragina eta bestetik, artifiziala, hau da, gizakiek paisaian egiten dituzten berrerraketak (legardiak, ubidetzea edo etorreren kontrako beste obra batzuk) "Uhalde -enara" hegaztiak aldaketa hauetara moldatzeko gaitasuna dauka, bere kolonien ezarlekuak azkar aldatuz. Nahiz eta espezie hori egoteko funtsezko baldintza ibaietako ezpondeak egotea izan, hauen ingurumenei egokitzen da eta, are gehiago, haran hutseei egokitzen da lurzoruaren okupazio gehiena nekazaritza denean eta gizaki asko daudenean ere, baldin eta kolonia hauek gogaitzen ez badituzte edo zuzenean koloniak erasotzen ez badituzte.

#### 1.2. Populazioen egoera

Populazioen tamaina eta dentsitatea ez dugu erabat ezagutzen. Balia ditzakegun behaketei esker, ernalakuntzarako populazioa bikoteen ehunkada batzuk baino ez da.

Populazioaren joera ere ezezaguna da, nahiz eta, Baia ibaiaren erdiko tartean koloniaren bat desagertu denez gero, pentsa dezakegun populazioa beharbada jaisten ari dela.

1.3. Populazioen bilakabidea baldintzatzen duten arriskuak eta faktoreak.

Oro har herrialde holartikoetan espeziearen gainean eragiten duten arriskuak hauek dira: alde batetik, habiak jartzeko

de nidificación, además de la disminución de recursos tróficos como consecuencia del empleo de pesticidas y las condiciones adversas de sus lugares de invernada.

En nuestro territorio, hay que destacar básicamente la negativa incidencia que suponen ciertas actuaciones incontroladas en los ríos, con rectificaciones y encauzamientos que no consideran adecuadamente el factor faunístico, en especial en los lugares de colonización y en épocas de reproducción. También es de grave incidencia la extracción de áridos de las graveras, sobre todo de los grandes ríos, que eliminan taludes con poblaciones asentadas de aviones zapadores o áreas susceptibles de colonización.

Cualquier actuación que se produzca sobre un talud utilizado como lugar de habitación o nidificación, sin tener en cuenta la misma, puede provocar la pérdida de la producción de toda una colonia imposibilitando la recuperación de la especie. Como contrapunto, hay que señalar su adaptabilidad a un medio cambiante y por tanto, la posibilidad de ubicar la colonia en otro enclave favorable, sea en las proximidades de la anterior, sea alejado.

#### 1.4 Estado legal.

El ave "Avión Zapador" (*Riparia riparia*) se encuentra incluido en el Catalogo Vasco de Especies Amenazadas con la categoría de "vulnerable" tal y como establece el Decreto 167/1996, de 9 de julio, del Gobierno Vasco.

### 2. PLAN DE GESTION

#### 2.1. Directrices

Como directrices generales se establecen las siguientes:

- Incrementar el grado de inventariación de las áreas de cría y de reunión o reposo en las zonas de distribución natural de la especie en Alava, dado el incompleto conocimiento del estado poblacional de la especie.

- Procurar el mantenimiento y conservación de las colonias y su entorno, permitiendo a la especie evolucionar de forma natural.

- Los organismos competentes en la autorización de los usos y actuaciones que afecten a las zonas referidas, velarán por la incorporación en los proyectos de cuantas medidas sean necesarias para la salvaguarda de la especie.

- Fomentar las actuaciones encaminadas para la recuperación de los hábitats ribereños, en las áreas ocupadas por la especie y su entorno.

#### 2.2. Medidas

##### 2.2.1. Medidas sobre el hábitat

Los informes técnicos y procedimientos de evaluación de impacto ambiental de proyectos o planes que afecten directa o indirectamente a las colonias o áreas de cría del ave "Avión Zapador", contemplarán las mismas como entornos de especial fragilidad.

Los proyectos de actuaciones en ríos, sus cauces, márgenes y zona de dominio público hidráulico, así como los de explotación de áridos en áreas que constituyan lugares de cría para las colonias de la especie o se sitúen en sus proximidades, incorporarán las medidas y soluciones que sean necesarias para la adecuada preservación de las colonias. Así mismo, los planes de restauración deberán de atender a los requerimientos de la especie, contemplando cuantas actuaciones sean necesarias para su continuidad y entre ellas, el establecimiento de taludes terrosos y balsas de agua a su pie, para facilitar nuevos asentamientos de la especie.

Se efectuará un estudio y control de las explotaciones agrarias adyacentes a las colonias localizadas, con la finalidad de determinar la posible incidencia en la especie del uso de pesticidas u otros productos fitosanitarios. A la luz del resultado de dicho estudio, el Departamento de Agricultura podrá tomar las medidas oportunas para limitar o adecuar el uso de los mismos en beneficio de la especie, de forma compatible en todo caso, con la explotación agraria.

tokiak suntsitzea edo aldatzea, eta bestetik, janaria lortzeko aukera murriztu izana, pestiziden erabilera dela-eta eta negua pasatzeko eremuetan egon diren lehorreak direla-eta.

Gure lurraldean gehien bat hurrengo eragin negatibo nabarmendu behar da: ibaien gainean egiten diren kontrolrik gabeko jarduerak, hala nola, artezteia eta ubidetzea. Hauek ez dute aberetza behar bezala kontuan hartzen, bereziki kolonien lekuak eta ugalketa garaiak. Beste eragin larri bat legardietatik aleak ateratzea da, gehien bat ibai handietan, uhalde-enaren populazioak dituzten ezpondak edo koloniza daitezkeen eremuak kentzen dituztelako.

Bizitzeko edo habiak jartzeko erabiltzen den ezponda baten gainean egiten den edozein jarduerak, baldin eta kolonia kontuan hartzen ez bada, kolonia horren galerak ekar dezake, eta bide batez, espeziearen susperraldia galaraz dezake. Hala eta guztiz ere, ingurumen aldakorrari egokitzeko gaitasuna aipatzekoa da, eta beraz, kolonia leku egoki batean ezar daiteke, bai aurreko kokalekutik hurbil, bai aurreko kokalekutik urrun.

#### 1.4. Lege egoera.

"Uhalde-enara" (*Riparia riparia*) hegaztia Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan sartuta dago eta "zaugarri" kategoria dauka. Horrela xedateen du Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak.

### 2.- KUDEAKETA PLANA

#### 2.1. Zuzentarauak

Hurrengoak dira zuzentarau orokorrak:

- Espezie honek Araban dituen umetzeko, biltzeko edo atsedena hartzeko berezko hedaduraren zonaldeetan inbentariazio gradua handitzea, espeziearen populazio-egoera ez baita erabatekoa.

- Koloniak eta beren ingurumena mantentzen eta zaintzen saiatzea, espezieari bere bilakabide naturala ahalbideratuz.

- Aipaturiko zonaldeetan erabileren eta jardueren baimena emateko ahalmena duten organismoek espeziea babesteko beharrezkoak diren neurriak proiektuetan sartzen direla begiratu dute.

- Espeziea bizi den eremuetan eta bere inguruetan ibaiertzeko habitatak berreskuratzeko jarduerak suspertzea.

#### 2.2. Neurriak

##### 2.2.1. Habitataren gaineko neurriak

Proiektuek edo planek "Uhalde-enara" ren kolonietan edo umetzeko eremuetan eragina dutenean, proiektu edo plan hauek ingurugiroan duten eraginari buruzko txostenek edo aztertzekeko prozedurek eremu hauek hauskortasun handiko eremutat hartuko dituzte.

Hurrengo jarduera-proiektuek koloniak babesteko neurri eta irtenbide egokiak izango dituzte: ibaietan, urbideetan, ibaiertzeeetan eta uren jabari publikoan egiten direnak eta aleak ustiatzeko eremuetan egiten direnak, eremu horiek espeziearen kolonietarako umetzeko tokiak direnean edo hurbil daudenean. Era berean, lehengoratzeko planek espeziearen beharrak jaso behar dituzte, bere biziraupenerako beharrezkoak diren jarduera guztiak sartuz eta besteak beste, lurrezko ezpondak eta haien behealdean urmaelak ezartzea, espeziearen ezarleku berriak ahalbideratzeko.

Atzemandako kolonien ondoan dauden nekazaritza ustiatuegien azterketa eta kontrola egingo da, espeziearen gainean pestizideek edo gainontzeko produktu fitosanitarioek eduki dezaketen eragina zehaztu ahal izateko. Aipaturiko ikerketaren emaitza kontuan hartuta, Nekazaritza Sailak hauen erabilera mugatzeko edo egokitzeko neurriak hartuko ditu, espeziearen alde, eta beti ere nekazaritza ustiategiarekin bateragarriak izango direnak.

## 2.2.2 Medidas sobre la especie

2.2.2.1. Incrementar el estudio de las colonias conocidas inventariando el número de ejemplares, parejas de cría y éxito reproductor.

2.2.2.2. Realizar prospecciones en aquellas zonas que se consideren de mayor interés para la localización de nuevas colonias.

2.2.2.3. Localizar e inventariar las áreas de alimentación y los puntos de reunión y reposos en el período premigratorio o durante los pasos primaveral u otoñal.

2.2.2.4. Obtener información a cerca de la ecología de la especie, especialmente en lo referente a sus requerimientos ambientales y los parámetros poblacionales.

## 2.3. Seguimiento

El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral llevará a cabo el seguimiento continuado de las colonias al objeto de comprobar su evolución y/o detectar problemas que afecten a su conservación. Se redactará un informe anual sobre la ubicación de las colonias y su estado poblacional, junto con un programa priorizado de actuaciones a desarrollar.

## 2.4 Divulgación

El Departamento de Agricultura y Medio Ambiente a fin de incrementar el grado de efectividad de aplicación del Plan de Gestión, promoverá el pleno conocimiento del mismo y será remitido a los organismos competentes de la Diputación Foral, del Gobierno Vasco y de los ayuntamientos implicados, para el conocimiento del mismo y para adecuar las directrices y medidas contempladas en este Plan, en su aplicación sectorial. Igualmente, distribuirá entre los organismos citados, un resumen de las conclusiones del informe anual de seguimiento al que se refiere el apartado anterior, con referencia explícita si fuera necesario, a las funciones que les compete.

A fin de divulgar el conocimiento sobre la especie entre los distintos grupos sociales afectados, el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente creará un folleto en el que se resuman las características biológicas de la especie, sus necesidades ecológicas, su situación en Alava, las medidas necesarias para su conservación y las líneas generales del Plan de Gestión.

En la medida de lo posible, se arbitrarán los medios para la evaluación del grado de aceptación social del Plan de Gestión y su aplicación.

## 3. CONCLUSIONES, DURACION Y REVISION DEL PLAN

El "Avión Zapador" es una especie migratoria que sufre las consecuencias de que sus colonias reproductoras se instalan en medios de características muy particulares tradicionalmente modificados por el hombre, lo que hace a la especie susceptible de sufrir importantes y rápidos cambios en su estatus.

La implementación de medidas de mejora del hábitat y la prevención, correcta planificación y control de los proyectos relacionados con los cauces fluviales y explotaciones de áridos, pueden asegurar el mantenimiento, la conservación y el fomento de esta especie hasta que los niveles de población permitan su descatalogación.

Dado el carácter migratorio del ave "Avión Zapador" y que por ello, el desarrollo y conservación de la especie, también depende de las condiciones en que se encuentre fuera del territorio alavés, las directrices y medidas contempladas en el Plan, tendrán una duración indefinida.

Una vez obtenidos los datos a los que se refiere el apartado 2.2.2. o se produzcan y conozcan variaciones en el estado de conservación de la especie y su hábitat, el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente podrá revisar el contenido del Plan de Gestión y redefinir sus directrices y medidas, en aquellos apartados que se considere necesario.

## 2.2.2. Espeziearen gaineko neurriak.

2.2.2.1. Kolonia ezagunen ikerketak handitzea, hegazti, ernalkuntza-bikote eta kumeen kopurua inbentariatuz.

2.2.2.2. Kolonia berriak atzemateko interes handiko zonaldeetan azterlanak burutzea.

2.2.2.3. Migratu aurreko epean edo udaberrian edo udazkenean igarotzen direnean elikatzeke eremua eta biltzeko eta atsendena hartzeko guneak atzeman eta inbentariatzea.

2.2.2.4. Espeziearen ekologiari buruzko informazioa lortzea, bereziki ingurugiroaren beharrei dagokiena eta populazio parametroei dagokiena.

## 2.3. Jarraipena

Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak kolonien jarraipen iraunkor bat eramango du bere bilakabidea egiaztatzeke edo bere zaintzan eragiten duten arazoak aurkitzeke. Kolonien kokaleku eta populazioen egoerari buruz urteroko txosten bat idatziko da, eta honekin batera, garatu beharreko jardueren programa zehatza.

## 2.4. Zabalkundea

Kudeaketa Planaren aplikazioaren eraginkortasun gradua handi dadin, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak oso-osorik ezaugarritako du eta Foru Aldundiaren organismo eskudunei, Eusko Jaurlaritzari eta eragindako udalei bidaliko die ezagut dezaten eta Plan honetan zehaztutako neurriak eta zuzentarauak bere eskumen eremuan egoki ditzaten. Era berean, aipaturiko organismoei aurreko paragrafoan zehazten den urteko txostenaren laburpena, jarraipenari buruzkoa, bidaliko zaie, eta hala balegokio, dagozkien eskumenen inguruan berriazko erreferentzia egingo da.

Eragindako gizarte-talde desberdinen artean espezieari buruzko ezaguera zabaltzeko, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak liburuxka sortuko du, gai hauek jorratzen dituen: espeziearen ezaugarri biologikoak, behar ekologikoak, Araban daukan egoera, babesteko beharrezkoak diren neurriak eta Kudeaketa Planaren ildo orokorrak.

Ahal den neurrian, gizarteak Kudeaketa Plana zenbateraino onartu eta aplikatzen duen ebaluatu ahal izateko baliabideak jarriko dira.


## 3. ONDORIOAK, IRAUPENA ETA PLANAREN BERRIKUSKETA

"Uharte-enara" espezie migratzailea da. Bere ugalketa-koloniak gizakiak aldatu ohi dituen ezaugarri berezietako inguruetan kokatzen direnez, espezieak horren ondorioak pairatzen ditu, eta hori dela eta, espezieak bere estatusen aldaketa garrantzitsuak eta azkarrak izan ditzake.

Habitata hobetzeko neurriak osatzeak, prebenitzeak, planifikazio egokiak eta ibaien urbideekin eta aleen ustategiekin zerikusia duten proiektuak kontrolatzeak espezie honen mantenimendua, zaintza eta susperraldia ahalbidera dezakete, deskatalogatzeko moduko mailak lortu arte.

"Uharte-enara" hegazti migratzailea denez gero, eta hori dela eta, lurraldetik kanpo aurkitzen dituen egoerek espeziearen garapena eta zaintza ere baldintzatzen dituztenez gero, Plan honetan zehaztutako zuzentzarauak eta neurriak mugagabeko iraupena izango dute.

2.2.2. atalean aipaturiko datuak lortutakoan edo espeziearen edo bere habitataren zaintza-egoeran aldaketak gertatu edo eza gutuz gero, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak, beharrezkoa den arloetan, Kudeaketa Planaren edukia berrazter dezake eta zuzentzarauak eta neurriak berriro defini ditzake.



- 1. Omecillo-Tumecillo
- 2. Bayas/Baia
- 3. Zadorra. Tramo medio y afluentes  
Erditartea eta ibaiadarrak
- 4. Ribera del Ebro  
Ebroko ibalbazterra

10000 m.